

MEMORIAREN EGUNEKO HITZARTZEA

Arratsalde on, eta eskerrik asko.

Esker hitzekin hasi nahi nuke nire hitzartzea. Eskerrik asko, nola ez bertaratu zareten guztioi. Eskerrik asko Intxorta elkarteari, eskainitako hitzengatik. Eta eskerrik asko Bizikidetza Batzordeko kideei.

Memoriaren Egunaren bueltan elkartzen gara urtero azaroaren 10ean. Horrela izan da azken urteetan, eta horrela izaten jarraitzea nahi dugu.

Intxortaren lan eta aitortzan zentratu baino lehen, Arrasateko Bizikidetza Batzordearen lanari balioa eman nahi nioke. Memoria partekatu bat izateko helburuarekin sortu zen, eta horretan aritu da urte guzti hauetan buru-belarri. Ez da bide erraza izan, baina guztiaren gainera elkarlana eta kontsentsua lehenetsi dira. Memoria kolektiboa, plurala eta integratzailea bilatzea da helburua, eta ahalegin horretan jarraituko dugu. Eskerrik asko, benetan, Bizikidetza Batzordeko kideei, egiten duzuen lanagatik. Eskerrik asko, baita ere, aurreko legegintzaldietan Batzordean lanean izan zareten kide guztiei.

Dakizuen bezala, gaurkoan, ez da biktimarik aitortuko; edo ez behintzat modu zuzenean, azken urteetan egin dugun bezala. Memoriaren alorrean denborek eta prozesuek emaitzek bezain beste garrantzia dute, eta hauek bermatzea garrantzitsua da. Aurten, jarraian izandako bi hauteskunde zikloek, ez dute prozesu eta denbora horien kudeaketa egokietarako bermerik eskaini. Baina konpromiso osoa duzue, bai

Bizikidetza Batzordearena, baina baita nirea pertsonala ere, giza eskubideen urraketa sufritu duten biktimak aitortzeko eta erreparatzeko lanean jarraituko dugula.

Eta aipatu berri dudan bezala, gaur ez dugu biktima baten edo batzuen aitortza zuzenik egingo. Gaurkoan, memorian ibilbide nekaezina izan duen INTXORTA 1937 ELKARTEAri aitortza egingo diogu.

Ibilbide luzea bezain emankorra da zuena. Ehunka testigantza, dokumentu historiko eta artxibo ezberdin ekarri dituzue argitara, askotariko formatutan: liburuak, erakusketak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak... Dozenaka proiektu jarri dituzue martxan helburu bakar batekin: ikusezin nahi zituzten biktimei izen eta abizenak jartzea. Euren duintasuna berreskuratzea. Ez hori bakarrik, istorio bat ere eman diguzue. Indarrez kendu zituzten bizitzen istorioak argitara ekarriz. Dagokien balioa eman ez.

Bide honetan, jakin izan duzue ere zeharkatzen gaituzten aldagaiekin lan egiten, eta memoria ikuspegi feminista batetik lantzeko ardura ere izan duzue. Horrela, 2016. urtean 63 emakumeren esperientziak, ibilbideak eta bizitza-istorioak jaso zenituzten, Emeek Eman proiektuan jaso zenutena. Historiaren eta memoriaren analisietarako iturri aberatsa izango dena, zalantzarik gabe.

Funtsean, INTXORTA 1937 elkartetik egindako lana, Herrigintzaren erakusle handi bat da. Horregatik, egunerokoan, borondate eta motibazioz baliatuta, lanean zaudeten taldeari balioa eman nahiko nioke.

Lortu duzuen diru guztia memoria berreskuratzeko proiektuetara bideratu duzue, inongo irabazi asmorik gabeko jarrerarekin. Lan nekaezina eta amaigabea, informazio berriei tiraka lan egiten, artxiboak han-hemenka arakatzen... Konpromisoz. Herriarekiko eta egiarekiko konpromiso osoz.

Gaurkoan ez dugu biktimen aitortzarik, baina zuek egindako lanak omentzen ditu Altxamendu frankistatik hasi, guda zibilak eta ondorengo diktadurak eragindako milaka eta milaka giza eskubideen urraketan eta indarkeriaren biktima, eta gaurkoan udalaren eta udalbatzaren aitortza doakizue, doakie.

Memoria partekatu eta kolektiboa eraikitzeko lanetan alboan izango gaituzue. Gertatutako guztia ezagutuz berriz errepika ez dadin oinarriak eraikitzen. Egin dezagun, beraz, memoriaren egunaz eguneroko lana: Kontatu diguten historia osatzeko ezinbestekoak diren gertaerak eta aurpegiak ezagutaraziz, eta bortizkeriak etendako eta baldintzatutako bizitzen erreparaziorako pausuak emanez. Eskerrik asko bihotz bihotzez.